

Baionako alkateordea

Agintariak

Euskaltzainak

Jaun-andreak,

Egunon guztioi, Bonjour à tous

Gaur Euskaltzaindiak bere barruan hartzen du Xarles Bidegain euskalaria eta euskaltzalea, pozarren eta esker onez.

Izan ere, Xarles Bidegain jada gure artean dugu, lehen euskaltzain urgazle gisa eta orain euskaltzain oso moduan.

Baditu horretarako merezimenduak. Dialektologia ez ezik, hainbat arlo jorratu ditu berak bere bizitzereginetan, esparru akademikoan nahiz gizartearen ekimenetan.

Ondo eta zehatz ezagutzen du Euskal Herria, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa. Gure berbakera guztiak, gure euskalkiak ez zaizkio arrotz. Esan gabe doa, hori erabat lagungarri gertatzen zaiola euskararen Akademiari.

Irakaskuntza eta ikerketa ditu ahalegin preziatuenak eta horretan jarraitzea nahi duela akademiak, horiek baitira berme esanguratsuak bere lan akademikorako.

Betor, beraz, Xarles Bidegain gurera eta izan ditzala gure agiantzarik onenak, Euskaltzaindian eta bizitzan, euskaldun eta euskaltzale jarraitu dezan.

Mila esker, merci beaucoup zuei, gaur Euskaltzaindiarekin egotearren, eta bereziki Baionako udalari eta herriari, gaur eskaini digun harreragatik.

Zorionak Xarlesi eta bere etxeko eta senideei eta orain joan zaitezte, Jean Haritschelhar eta Patxi Uribarren, Xarles Bidegainen bila eta gure artera ekarri, bere sarrera-hitzaldia egin dezan.

Andres Urrutia
euskaltzainburua